# 3.596 atxiloketa 2003an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean

**Atxiloketa kopuruak behera egin du gazteen artean, aurreko urteekin alderatuta. Aipatu beharra dago, hala ere, atxilotuak gero eta gazteagoak direla eta atzerritarrak direla. Atxilotuetako hamarretik bederatzi gizonezkoak dira.**



Euskadin 2003an egin diren atxiloketa guztietatik (7.492 guztira), % 48 15 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkie. Gazteen arteko atxiloketen kopuruan beherakada somatzen da, aurreko urteekin konparatuta.
Gazteen artean burutu diren atxiloketen beherakada ez dator bat Euskadiko egoera orokorrarekin: izan ere, Euskadin atxiloketen kopuru osoa 2001ean jaitsi egin zen eta 2003an berriz ere igo.

**Atxiloketa kopurua biztanleria osoan eta 15 eta 29 urte bitartekoen artean. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1996-2001-2003**

| | 1996 | | 2001 | | 2003 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **7.356** | **100** | **7.011** | **100** | **7.492** | **100** |
| **15-29** | **4.229** | 57,5 | **3.629** | 51,8 | **3.596** | 48,0 |

Iturria: Herrizaingo Saila eta bertan egina

Datuak adin-tarteen arabera eta epealdi osoan aztertuz gero, atxiloketa gehienak 19 urtetik gorakoen artean gertatzen dira, baina beste 19 urtera artekoekiko aldea txikituz doala ere antzeman daiteke. Hain zuzen ere, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen atxiloketen bolumenak igo egin du aldi osoan, eta beste adin-taldeetako gazteenak behera.

**Atxiloketak 15 eta 29 urte bitartekoen artean, adin-taldeen arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1996-2001-2003**

| | 1996 | | 2001 | | 2003 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **15-29** | **4.229** | **100** | **3.629** | **100** | **3.596** | **100** |
| **15-19** | **902** | 21,3 | **922** | 25,4 | **1.023** | 28,4 |
| **20-24** | **1.652** | 39,1 | **1.326** | 36,5 | **1.211** | 33,7 |
| **25-29** | **1.675** | 39,6 | **1.381** | 38,1 | **1.362** | 37,9 |

Iturria: Herrizaingo Saila eta bertan egina

2003an atxilotutako gazteen % 32,8 Bizkaian jaioak ziren, % 21,5 Afrikan, % 12,2 Gipuzkoan, eta % 10,1 Estatuko beste probintzietan.
Gazte atxilotuen nazionalitateari dagokionez, aldaketa nabarmenak antzeman dira 1996tik aurrera. 1996an, atxilotuetako % 13,6 atzerritarrak ziren; 2003an, ordea, atzerritarrak atxiloturiko gazteen % 38,7 izan dira.
Azterturiko hiru aldietan, Euskadin atxilotutako atzerritarren erdia baino gehiago afrikarrak izan dira.

**Atxiloketak 15 eta 29 urte bitartekoen artean, jaiotze-probintziaren edo nazionalitatearen arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1996-2001-2003**

| | 1996 | | 2001 | | 2003 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **4.229** | **100** | **3.629** | **100** | **3.596** | **100** |
| **Araba** | **285** | 6,7 | **186** | 5,1 | **219** | 6,1 |
| **Bizkaia** | **1.861** | 44,0 | **1.436** | 39,6 | **1.181** | 32,8 |
| **Gipuzkoa** | **1.029** | 24,3 | **621** | 17,1 | **439** | 12,2 |
| **Estatuko gainerako probintziak** | **472** | 11,2 | **346** | 9,5 | **363** | 10,1 |
| **Europar Batasuna** | **136** | 3,2 | **177** | 4,9 | **194** | 5,4 |
| **Europako gainerako herrialdeak** | **22** | 0,5 | **71** | 2,0 | **178** | 4,9 |
| **Áfrika** | **350** | 8,3 | **649** | 17,9 | **772** | 21,5 |
| **Amerika** | **17** | 0,4 | **63** | 1,7 | **133** | 3,7 |
| **Asia** | **27** | 0,6 | **52** | 1,4 | **47** | 1,3 |
| **Ozeania** | **0** | 0,0 | **1** | 0,0 | **3** | 0,1 |
| **Atzerriko beste herrialdeak** | **24** | 0,6 | **27** | 0,7 | **66** | 1,8 |
| **Ezezaguna** | **6** | 0,1 | **0** | 0,0 | **1** | 0,0 |

Iturria: Herrizaingo Saila eta bertan egina

Euskadin, hamar atxilotuetatik bederatzi gizonezkoak dira. Proportzio horrek berdintsu dirau azterturiko aldi osoan, gorabehera handiegirik gabe.

**Atxiloketak 15 eta 29 urte bitartekoen artean, sexuaren arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1996-2001-2003**

| | Gutzira | | Gizonezkoak | | Emakumezkoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1996 | **4.229** | 100 | **3.911** | 92,5 | **318** | 7,5 |
| 2001 | **3.629** | 100 | **3.252** | 89,6 | **377** | 10,4 |
| 2003 | **3.596** | 100 | **3.243** | 90,2 | **353** | 9,8 |

Iturria: Herrizaingo Saila eta bertan egina

Erlazionaturiko datu-taulak:

1. taula (pdf, 21 kb).

2. taula (pdf, 23 kb).

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak